

ONDO EGINAK ZER MEREZI DUEN

Ereñoko Gabika auzoko Maria Josefa Ispizuak kontatuta

Otso bat, ahari handi batek azpian hartuta, irten ezinik arnasoska zegoen. Gizon bat bere ondoan igaro zen.

- Atera nazazu hemendik, adiskide, atera nazazu –esaten zion otsoak.
- Baina zuk jan egingo nauzu eta hobe dut nik bakea.
- Ez, ez zaitut jango eta atera nazazu.

Gizon horrek azkenean otsoa harripetik atera zuen. Otsoak orduan:

- Gose denak jan egin behar du eta oraintxe jan behar zaitut.
- Ez didazu esan bada jan barik utziko ninduzula?
- Esan bai, baina gose duenak jan egin behar du eta..
- Ona bada, otsoko: bidez bat egin dezagun hiruren burubidea jarraitu dezagun. Ondo eginak txarto merezi duela badiote, jan nazazu orduan.

Badoaz, badoaz, badoaz eta bide ondoan txakur bat aurkitu zuten, ozta zebilen txakur zaharra, muturra lurreraino goseak makurtuta zuen bat.

- Aup! –otsoak txakurrari-. Ondo eginak zer merezi du?
- Ondo eginak txarto. Makina bat erbi harrapatu ditut nik ugazabarentzat eta orain gosez hementxe nauka!

Badoaz berriro joan eta joan eta behi zahar bat aurkitu zuten, larre baten oboen-oboen zebilela.

- Adiskide –itaundu zion otsoak-, ondo eginak zer merezi du?
- Ondo eginak txarto. Hamaika esne-zurrutada eder emanikoa naiz ni eta orain hementxe naute gosez hezur hutsean!

Otsoak orduan gizonari

- Honezkero jan behar zaitut –esan zion.
- Ez ni, hirugarrenari bere iritzia entzun barik.

Aurrera eta aurrera zihoazela azeri bat aurkitu zuten.

- Ondo eginak zer merezi du, azeriko?
- Ondo eginak zer merezi duen! Ondo egin hori segun eta zelakoa den.

Batak eta besteak azeriari euren artean jaso zena kontatu zioten. Azeriak orduan:

- Otsoko: lehen zelan egon zen ikusi behar dugu, horretarako –esanaz, hirurak lehengo bideetan zehar, harako ahari handia aurkitu arte, ibili ziren.

- Hauxe da aharia –esan zuen gizonak.

Bere azpian azeriak eta gizonak otsoa ezarri zutenean, azeriak:

- Egon hadi orain bertan, kirten esker txarreko hori –esanda, gizonarekin batera alde egin zuen.

Resurrección María de Azkue

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989